

**BOKAZIOEN ALDEKO MUNDUKO LII. OTOITZ JARDUNALDIA**

**LII JORNADA MUNDIAL DE ORACIÓN POR LAS VOCACIONES**

**2015KO APIRILAREN 20ETIK 26RA**

**DEL 20 AL 26 DE ABRIL DEL 2015**





**Eukaristietarako sarrerako oharra**  
**Bokazioen aldeko Eguneko otoitza**  
**Apirilaren 26, igandea, ospakizunerako gidoi liturgikoa**  
**Bokazioen aldeko otoitz-bilerarako gidoia**

**Monición de entrada para las Eucaristías**  
**Oración por las vocaciones de la Jornada**  
**Guión litúrgico para la celebración del domingo 26 de abril**  
**Guión encuentro de oración por las vocaciones**

## **EUCARISTIAS**

*Os proponemos, para cada Eucaristía de esta semana, una monición de entrada, así como introducir una petición vocacional en el momento de las preces y el rezo, al final de la Eucaristía, de la oración vocacional de esta Jornada.*

### ***Oración por las vocaciones para la Jornada de este año***

Gracias, Señor, por aquellos a los que llamas  
a servirte como sacerdotes,  
encomendándoles el cuidado de su comunidad  
y la evangelización de quienes no te conocen.  
Gracias por hacerles ministros tuyos,  
atentos a las necesidades de todos,  
con afán de servir y compromiso misionero.

Gracias por quienes, movidos por tu Espíritu,  
viven con radicalidad el Evangelio  
como religiosos y religiosas.  
Gracias por los que, con su oración comunitaria,

interceden sin cesar por toda la humanidad,  
y por los que hacen de la actividad caritativa  
un testimonio de tu amor y tu misericordia.

Gracias, Señor, por todas las vocaciones,  
que, aquí y en los territorios de misión,  
son signo de la vitalidad de tu Iglesia.  
Que la libertad y entrega de sus vidas  
siga mostrándonos que es bueno caminar contigo  
Para anunciar el Evangelio por toda la tierra.  
Amén

## **EUKARISTIAK**

*Aste honetako Eukaristia bakoitzerako sarrerako ohar bat proposatzen dizuegu, baita bokazioen aldeko eskari bat sartzea ere eskarietako unean eta Eukaristiaren bukaerako otoitzean, Egun horretako bokazioen aldeko otoitzean.*

- ***Egun bakoitzeko eskarirako**, honako material hau erabil daiteke: “Bokazioen aldeko Eskariak” Donostiako Elizbarrutiko Bokazio Pastoraltzak egindako argitalpena, Idatz, 2004.*
- ***Bokazioen aldeko otoitza aurtengo Egunerako***

### ***OTOITZA***

Eskerrik asko, Jauna, beren elkartearen zainketaren  
eta ezagutzen ez zaituztenen  
ebanjelizazioaren ardura emanaz,  
apaiz bezala zerbitzaritzat aukeratu dituzunengatik.  
Eskerrik asko zure ministro egiteagatik,  
guztion beharretara adi,  
zerbitzatzeko grinarekin eta misiolari konpromisoarekin.

Eskerrik asko, zure Espirituak eraginda,

lekaide eta lekaiame izanik,  
Ebanjelioa erradikaltasunez bizi dutenengatik.  
Eskerrik asko, beren elkarte otoitzarekin,  
gizadi osoaren alde etengabe erregutzen dutenengatik,  
eta karitatezko jarduera zure maitasun  
eta errukiaren lekukotasun bihurtzen dutenengatik.

Eskerrik asko, Jauna, bokazio guztiengatik,  
hemen eta misioko lurraldeetan,  
zure Elizaren bizitasunaren zeinu baitira.  
beraien askatasunak eta eskaintzak  
erakuts diezagutela ederra dela zurekin bidea egitea  
Ebanjelioa mundu osoan barrena iragartzeko.  
Amen.

## **20 de abril LUNES III DE PASCUA. MONICIÓN DE ENTRADA**

El próximo domingo será el domingo del Buen Pastor, donde celebramos la Jornada Mundial de Oración por las Vocaciones dentro de la Iglesia. Con esta Jornada todos estamos invitados a pedir al Padre que envíe obreros a su mies, pero que entre esos obreros mande “especialistas”. No debemos olvidar que todos somos llamados por Dios y que todos estamos convocados, por el bautismo, a hacer un seguimiento radical de Cristo. Pero la Iglesia necesita especialmente vocaciones sacerdotales, religiosas, laicos comprometidos en la construcción de un mundo mejor. Cualquier cristiano es evangelizador, pero los sacerdotes, religiosos y laicos dedican su vida, sus esfuerzos a eso. De ahí la importancia de estas vocaciones.

## **21 de abril. MARTES III DE PASCUA. MONICIÓN DE ENTRADA**

El hombre quiere tener signos materiales, pruebas, que le confirmen que Jesús es el único que puede saciar la sed de plenitud y vida que tiene el ser humano. La respuesta de Jesús es clara, aunque no todos se atreven a probarla: “Yo soy el pan de vida. El que viene a mí no pasará hambre, y el que cree en mí nunca pasará sed”.

Presentémosle hoy al Señor nuestro deseo de seguirle cada día más de cerca y pidámosle vocaciones sacerdotales, religiosas y laicales para la Iglesia, especialmente para nuestra Iglesia Diocesana.

### **22 de abril. MIÉRCOLES III DE PASCUA. MONICIÓN DE ENTRADA**

“He bajado del cielo, no para hacer mi voluntad, sino la voluntad del que me ha enviado” (Jn 6, 38). Jesús vino para hacer la voluntad de su Padre, y nos invita a todos nosotros también a vivir según Su voluntad.

Hoy queremos tener presente de forma especial a la Vida Consagrada, lo que ella es y significa en la Iglesia, dando gracias a Dios, especialmente, por su tarea evangelizadora.

### **23 de abril. JUEVES III DE PASCUA. MONICIÓN DE ENTRADA**

En la primera lectura Felipe pregunta al Eunuco: “Entiendes los que vas leyendo”. El Eunuco le contestó: “¿Cómo puedo entenderlo, si nadie me guía?”.

Recordamos hoy y presentamos de modo especial al Señor a todos aquellos hermanos nuestros que han recibido el sacramento del orden. Que llamados a configurarse con Cristo realicen con fidelidad y gozo su labor de predicar el evangelio, celebrar el culto divino y apacentar a los fieles.

### **Apirilaren 21a. PAZKOALDIKO III. ASTELEHENA. SARRERAKO OHARRA**

Datorren igandean Artzain Onaren eguna denez, Bokazioen Aldeko Munduko Jardunaldia ospatuko dugu Elizan. Jardunaldi honekin denok gonbidatuak gaude Aitari eskaria luzatzera, uztara langileak bidal ditzan. Baina, langile horien artean “adituak” ere bidal ditzala. Ez dezagun ahantz Jainkoak denok deitzen gaituela eta Bataioaren bidez denok gaudela Kristori ondotik jarraitzera gonbidatuak. Baina, Elizak behar-beharrezkoak ditu apaizak, erlijiosoak eta mundu hobe bat eraikitzeko bokazioa duten laiko konprometituak. Edozein kristau da ebanjelizatzaile, baina apaizek, erlijiosoek eta laikoek horretarako eskaintzen dituzte euren bizitza eta ahaleginak. Horregatik dira bokazio hauek hain garrantzizkoak.

### **Apirilaren 22a. PAZKOALDIKO III. ASTEARTEA. SARRERAKO OHARRA**

Gizakiak ezaugarri materialak nahi ditu: frogak; gizakiari bere baitan duen osotasun- eta bizi-egarria ase diezaiokeen bakarra Jesus dela baieztatuko dioten frogak. Argia da Jesusen erantzuna, nahiz eta denak ez diren probatzera ausartzen: “Neu naiz bizia ematen duen ogia; niregana hurbiltzen dena ez da sekula gose izango, eta niregan sinesten duena ez da behin ere egarri izango”.

Erakuts diezaiogun gaur Jaunari egunero berari gertuagotik jarraitzeko dugun asmoa eta eska diezazkiogun Elizarentzat apaiz, erlijioso nahiz laikotarako bokazioak, bereziki, gure Elizbarrutirako.

### **Apirilaren 23a. PAZKOALDIKO III. ASTEAZKENA. SARRERAKO OHARRA**

“Ez naiz zerutik jaitsi neure nahia egitera, bidali nauenen nahia egitera baizik” (Jn 6,38). Aitaren borondatea egiteko etorri zen Jesus, eta gu guztioi luzatzen digu Haren borondatearen arabera bizitzeko deia.



Gaur bereziki gogoratu nahi dugu Sagaraturiko Bizitza: zer den eta zer esanahi duen Elizarentzat; Jainkoari haien ebanjelizatze-lanagatik eskerrak emanaz.

### **Apirilaren 24a. PAZKOALDIKO III. OSTEGUNA. SARRERAKO OHARRA**

Lehenengo irakurgaian hau galdetzen dio Felipek irenari: “Ulertzen al duzu irakurtzen ari zarena?”. Hark erantzun dio: “Nola ulertuko dut, bada, inork ulerpiderik ematen ez badit?”.

Gogoan ditugu gaur eta modu berezian aurkezten dizkiogu Jaunari apaizgintzako sakramentua hartu duten gure senide guztiak. Kristoren irudiko izatera deituak direnez, ebanjelioa zabaltzen, Jainko-gurtza ospatzen eta fededunak larratzen leialtasunez eta pozik jardun dezaten.

### **24 de abril. VIERNES III DE PASCUA. MONICIÓN DE ENTRADA**

“Alabad al Señor, todas las naciones, aclamadlo, todos los pueblos” (Sal 116). El Señor ha hecho maravillas, démosle gracias.

Cada uno de nosotros somos una de esas maravillas. Demos gracias hoy especialmente a Dios por los laicos de la Iglesia, en general, y de nuestra Diócesis, en particular, con la diversidad de funciones y ministerios que desempeñan. Ellos son sal y luz para el mundo, testigos del amor de Dios a los hombres.

### **25 de abril. SÁBADO III DE PASCUA. MONICIÓN DE ENTRADA**

“¿Cómo pagaré al Señor todo el bien que me ha hecho” (Sal 115). En esta Eucaristía agradezcamos a Dios por todos los dones, carismas y ministerios que regala a su Iglesia, con los cuales la enriquece y plenifica. Y sigamos pidiéndole que envíe obreros a Su mies para el bien de la humanidad entera.

### **26 de abril. DOMINGO IV DE PASCUA. GUIÓN LITÚRGICO**

**Jornada Mundial de Oración por las Vocaciones**

### **SARRERAKO OHARRA**

**Este domingo nos volvemos a reunir para celebrar la eucaristía. En este tiempo de Pascua nos convoca Cristo resucitado, que nos sale al encuentro en la Palabra y en la fracción del pan.**

**La Iglesia entera conmemora en este día la Jornada Mundial de Oración por las Vocaciones, instituida por el papa Pablo VI en el Concilio Vaticano II. Hoy tenemos motivos para dar gracias a Dios porque a lo largo de la Historia ha llamado a hombres y mujeres a poner en juego sus vidas al servicio del Evangelio, y ellos han respondido en fidelidad, dándolo todo.**

**Pero la llamada de Jesús sigue resonando en nuestro mundo. Por eso se nos invita a orar para que sean muchos los que se dejen seducir por la voz del Señor, y dejándolo todo se atrevan a seguirlo en la vida consagrada y en el sacerdocio, testimoniando así, en la variedad de vocaciones, la única Verdad que es Cristo.**

**Reunidos en su nombre, disponemos nuestro corazón para encontrarnos con él, y con este gozo pascual comenzamos nuestra eucaristía.**

**Eukaristia ospatzera bildu gara berriro ere igande honetan. Pazkoaldi honetan, Kristo piztuak biltzen gaitu, bere Hitzean eta ogia zatitzean bidera irteten zaigun Kristok.**

**Egun honetan Eliza osoak ospatzen du Bokazioen Aldeko Munduko Jardunaldia, Paulo VI.a Aita Santuak Vatikanoko II.a Kontzilioan eratu zuena. Gaur egun eskerrak eman diezazkiokegu Jainkoari historian zehar Ebanjelioaren zerbitzura euren bizia arriskuan jarri duten gizon-emakumeei dei egin dielako eta horiek leialtasunez dena emanaz erantzun dutelako.**

**Baina, Jesusen deia oihartzun ozena da oraindik gure munduan. Horregatik luzatzen zaigu otoitz egiteko gonbita, Jaunaren deiak liluraturik eta dena utzirik, asko izan daitezen sagaraturiko bizieran eta apaiz-bizitzan jarraitzeko ausardiaz Egia bakarria den Kristoren lekukoak, bokazio ugaritasunean.**

**Haren izenean bildurik, presta dezagun bihotza beraren bidera irteteko, eta abia gaitzen pazko pozez eukaristia ospatzera.**

#### **Apirilaren 24a. PAZKOALDIKO III. OSTIRALA. SARRERAKO OHARRA**

*“Goretsazue Jauna, nazio guztiok, ospa ezazue, herri guztiok” (116. Sal).* Harrigarriak egin ditu Jainkoak, emazkiogun eskerrak.

Gutako bakoitza gara harrigarri horietakoa bat. Emazkiogun gaur bereziki eskerrak Jainkoari Elizako laikoengatik, oro har, baina, batez ere, gure elizbarrutikoengatik, haren barruko funtzioetan eta eginkizunetan esku hartzeagatik. Munduarentzat gatz eta argi dira, Jainkoak gizakioi digun maitasunaren lekuko.

#### **Apirilaren 25a. PAZKOALDIKO III. LARUNBATA. SARRERAKO OHARRA**

*“Nola ordainduko diot Jaunari egin didan on guztia?” (115. Sal).* Gaurko Eukaristian eman diezazkiogun eskerrak Jainkoari bere Elizari, osotasunera iristeko, oparo isurtzen dizkion dohain, karisma eta ministerio guztiengatik. Eta jarrai dezagun, gizateria guztiaren onerako, uztara langileak bidal ditzala eskatzen.

#### **Apirilaren 26a. PAZKOALDIKO IV. IGANDEA. GIDOI LITURGIKOA**

**Bokazioen Aldeko Munduko Otoitz Jardunaldia**

#### **PREDIKURAKO IRADOKIZUNAK**

Pazkoaldiko liturgiak lehen kristauen Kristoren jarraipeneko erantzuna jartzen digu aurrean. Garai hartan asko ziren apostoluen testigantzak eraginda bihotz-berritzen eta bataiatzen zirenak, Piztu zenari entzutera jartzen eta koherentzia nahiz erradikaltasunean berarekin konprometitzen zirenak. Kristau-bizitzaren muinean dago jarraipeneko deia, eta bataiatu guztiak gaude Kristoren aurrean jarri eta bene-benetan galdera hau egitera gonbidatuak: zer egin behar dugu?

«Kristok berak utzi zigun eredia, bere urratsak jarraitzeko». Haren bizitzan bere betera eramana dago maitasun handienaren eta eskaintzarik emankorrenaren esperientzia. Horregatik Jesusek ez ditu nahi miresle soilak, ezta arrazionalki soilik jarraituko diotenak ere. Hark gaur egun ere lilura sortzen du, kristauen bihotzera iritsi eta gizateriaren aldeko zerbitzuan nahiz Aitarekiko gertutasunean bizitza eskaintzeko deia luzatuz. Gure garai honetan ere merezi du Jesusen urratsetan gure oinak jartzea.

Giro askotariko eta asmo iluneko deiak ugaritzen ari diren gizarte honetan, erraza da lehia edo norgehiagoka, edukitzera edo itxura ematera gonbidatzen duten haiei liluratzen uztea. Hala ere, horrelako zorientasunak ez dira gai giza bihotza osoki betetzeko; gure garaiko “lapur eta alprojak” sartzen diren atak ditugu horiek. Horregatik, «beharrezkoa da Jainkoaren borondatearekin bat ez datozen pentsamolde eta jokabideak gainditzea».

Alabaina, Jesus atetik sartzen da, aurrez aurre hitz egiten du eta zorionbide bat proposatzen, norberaren bizitza ezkuturik gabe eskaintzea oinarri harturik, Hark egin zuen moduan. Liluratu egiten duelako jarraitzen zaio Jesusi, eta ardiek artzainari jarraitzen diote «ahotsa ezagutzen diotelako», Jar gaitzen buruz buru bere aurrean. Izan dezagun adore berari entzuteko, eta haren hitzek alda gaitzatela barrutik. Izan gaitzen askoren bidelagun, Artzain Onaren aurrean galde dezaten: zer nahi duzu nik egitea? Desegin ditzagun beldur mehatxatzaileak, jakinik bizitzaren etapa bakoitzean «Jainkoak bere eskuen emaitza den obra suhartasunez eta maisutasunez jarraitzen duela».

Jesusegan gonbidatuak gaude «bizia izatera eta ugari izatera», «bihotza ideal handiei, gauza handiei irekitzera ». Halako erronka batek beharrezkoak ditu saiatzeari, argitasuna eta bereizmena. Haizearen kontrari ibiltzea eta gudan nahiz gudan kanpo diren oztopoak gainditzea eskatzen du.

Bokazioen Aldeko Munduko Egun honetan dei bat entzuten dugu: «Irten duzun guztia ematera». Kasu egin diezaiogun Jesusi eta jarrai diezaiogun geure baitatik, lapurrak nahiz gizatarrak mugitzen diren egunerokotik eta betiko bizimodutik irtenik. Har dezagun kontzientzia nolako aberastasuna den bizitza osorik, bere osotasunean ematea, gerora berreskuratzeko (cf. Lk 17,33).

Elizaren baitako bokazio askotarikoak Egiaren isla distiratsu eta koloretsu bilakatzen dira: Kristoren isla. Egin dezagun otoitz kristau guztiak, batez ere gazteak, entzuteko jarreran jartzeko ausardia izan dezaten eta Kristorekin errotik elkar daitezen. Eta bokazioak «Jainkoaren bihotzetik sortzen direla» jakinik, egin dezagun otoitz kristau-elkarte garen aldetik, Erreinuaren eta gizadiaren zerbitzuan jardungo duten bokaziodun asko bidal ditzan.

La liturgia pascual sitúa frente a nosotros la respuesta de seguimiento a Cristo de los primeros cristianos. Entonces eran muchos los que, movidos por el testimonio de los apóstoles, se convertían y bautizaban, se ponían a la escucha del Resucitado y se comprometían con él en coherencia y radicalidad. La llamada al seguimiento está en el corazón de la vida cristiana, y todos los bautizados estamos invitados a situarnos frente a Cristo para interrogarnos con sinceridad: *¿qué tenemos que hacer?*.

«Cristo nos dejó un ejemplo para que sigamos sus huellas». En su vida está completada la experiencia del amor más grande, de la entrega más generosa. Por eso Jesús no necesita simples admiradores, ni tampoco quienes le sigan solo racionalmente. Él sigue hoy seduciendo, llegando al corazón de los cristianos e invitando a compartir su vida de servicio a la humanidad y de intimidad con el Padre. Las huellas de Jesús, también en este tiempo nuestro, merecen ser pisadas.

En una sociedad en la que se multiplican las llamadas desde ambientes diversos y con intenciones confusas, es fácil dejarse seducir por aquellos que invitan a competir o rivalizar, tener o aparentar. Son felicidades incapaces de llenar en plenitud el corazón humano, falsas puertas por las que se cuelan los “ladrones y bandidos” de nuestra época. Por eso «es necesario superar los modos de pensar y actuar no concordes con la voluntad de Dios».

Sin embargo, Jesús entra por la puerta, habla cara a cara, propone un camino de felicidad apoyado en la entrega de la propia vida, sin reservas, al modo como él lo realizó. A Jesús se le sigue porque seduce; las ovejas siguen a su pastor «porque conocen su voz». Pongámonos cara a cara frente a él. Atrevámonos a escucharlo y a dejarnos transformar interiormente por sus palabras. Acompañemos a muchos para que se pregunten, ante el Buen Pastor, «¿qué quieres que haga?» Disipemos los miedos que nos amenazan, conscientes de que «Dios sigue con pasión y maestría la obra fruto de sus manos en cada etapa de la vida».

En Jesús somos invitados a «tener vida y vida abundante», a «abrir el corazón a grandes ideales, a cosas grandes». Esto es un reto que exige esfuerzo, lucidez, discernimiento. Supone caminar contracorriente, superar obstáculos dentro y fuera de nosotros.

En esta Jornada Mundial de Oración por las Vocaciones escuchamos una llamada: «Sal a darlo todo». Prestemos atención a Jesús y sigámosle con una actitud de éxodo de nosotros mismos, de lo cotidiano y rutinario, donde se mueven ladrones y bandidos. Tomemos conciencia de la riqueza que supone dar la vida entera, en su totalidad, para poder ganarla (cf. *Lc* 17, 33).

La pluralidad de vocaciones en la Iglesia se convierte en reflejo luminoso y colorido de la Verdad, que es Cristo. Oremos para que todos los cristianos, especialmente los jóvenes, se atrevan a ponerse en actitud de escucha, y se comprometan de forma radical con Cristo. Y conscientes de que la vocación «surge del corazón de Dios», oremos, como comunidad cristiana para que él envíe a muchos a entregarse al servicio del Reino y de la humanidad.

## OTOITZ UNIBERTSALA

*Apaiza:*

**Eliza osoarekin bat eginik, degiogun otoitz herria gidatzen, zaintzen eta lagun egiten dion Jainkoari.**

Egin dezagun otoitz Elizako artzainen alde. Frantzisko Aita Santuaren alde, gotzain, apaiz eta diakonoen alde. Jesusi entzunez eta gizateria zerbitzatzearen bidez barrutik eralda daitezen. Eska diezaiogun Jaunari.

E.: Entzun arren, Jauna.

Egin dezagun otoitz esker onez Kristori hurbilagotik jarraitzeko deari sagaraturiko bizieran, apaiz-bizitzan nahiz laiko leial modura leialtasunez erantzun dioten gizon-emakumeen alde. Horiek eskainitako bizitza Jainkoak sorkari guztienganako duen maitasunaren zeinu izan dadila. Eska diezaiogun Jaunari.

E.: Entzun arren, Jauna.

Egin dezagun otoitz gure munduan arrazoi askorengatik sufritzen duten gizon-emakume guztien alde. Krisiaren biktima direnengatik; etorkizun hobearen bila euren herrialdetik irteten direnen alde; gaixorik nahiz bakarrik daudenen alde, eta euren bizitzaren zentzuaren bila dabilzan gazteen alde. Guztiek aurki dezatela Kristogan, bere bizia ardiengatik ematen duen Artzain Onarengan, indarra eta adorea. Eska diezaiogun Jaunari.

E.: Entzun arren, Jauna.

Egin dezagun otoitz kristau guztiok Ebanjelioaren poza bizi eta hots egin dezagun. Jakin dezagula Jainkoagan babesturiko bizimodu zentzudun baten poza helarazten. Proposa diezaiegula beldurrik gabe Kristori jarraitzea inguruan ditugunei eta lagun egin diezaiegula poztasunez Jainkoaren borondatea entzuteko jarreran direnei. Eska diezaiogun Jaunari.

E.: Entzun arren, Jauna.

Pazkoaldiko IV. igandea

Egin dezagun otoitz, uztaren jabe den Jaunak dena emateko prest leudekeen bokazioak sor ditzan, eta euren bizitza jokoan jar dezaten apaiz-ministerioan eta sagaraturiko bizieran, eta bihotz zabalez eta beldurrik gabe erantzun dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.

E.: Entzun arren, Jauna.

*Apaiza:*

**Jainko Jauna, kristau guztiei maitasun betera iristeko gonbita luzatzen diezuna, baina zure Semearen urratsei gertuagotik jarraitzeko deia askori etsi gabe luzatzen diezuna, egizu iritsi daitezela zuk bokazio berezi batez aukeratu nahi dituzunak, euren bizitzaren bidez, Elizaren aurrean eta munduaren aurrean zure erreinuaren zeinu eta lekuko izatera. Jesu Kristo, gure Jaunaren bitartez.**

**E.: Amen.**

## **ORACIÓN UNIVERSAL**

*Sacerdote:*

**Unidos a toda la Iglesia dirigimos nuestra oración a Dios, que guía, cuida y acompaña a su pueblo.**

Oremos por los pastores de la Iglesia. Por el papa Francisco, los obispos, sacerdotes y diáconos. Para que se transformen interiormente a través de la escucha de Jesús y del servicio a la humanidad. Roguemos al Señor.

R. Te rogamos, óyenos.

Oremos, agradecidos, por aquellos hombres y mujeres que han respondido en fidelidad a la llamada de Cristo a seguirle más de cerca, en la vida consagrada, en el sacerdocio o como fieles laicos. Que sus vidas entregadas sean signo del amor de Dios por todas las criaturas. Roguemos al Señor.

R. Te rogamos, óyenos.

Oremos por todos los hombres y mujeres que en nuestro mundo sufren por cualquier causa. Por aquellos que son víctimas de la crisis; por quienes abandonan sus países en busca de un futuro mejor; por los enfermos y los que están solos; por los jóvenes que buscan sentido a sus vidas. Que todos ellos encuentren fuerza y consuelo en Cristo, el Buen Pastor que da la vida por sus ovejas. Roguemos al Señor.

R. Te rogamos, óyenos.

Oremos para que todos los cristianos vivamos y anunciemos la alegría del Evangelio. Que sepamos transmitir el gozo de una vida con sentido apoyada en Dios. Que propongamos sin miedo el seguimiento de Cristo a quienes nos rodean y acompañemos con entusiasmo a quienes se ponen a la escucha de la voluntad de Dios. Roguemos al Señor.

R. Te rogamos, óyenos.

#### IV Domingo de Pascua

Oremos para que el Señor, Dueño de la mies, suscite vocaciones dispuestas a salir a darlo todo, y que pongan en juego su vida, en el ministerio sacerdotal y en la vida consagrada, y respondan con generosidad y sin miedo. Roguemos al Señor.

R. Te rogamos, óyenos.

*Sacerdote:*

**Señor, Padre santo, tú que invitas a todos los fieles a alcanzar la caridad perfecta, pero no dejas de llamar a muchos para que sigan más de cerca las huellas de tu Hijo, concede a los que tú quieras elegir con una vocación particular llegar a ser, por su vida, signo y testimonio de tu reino ante la Iglesia y ante el mundo. Por Jesucristo, nuestro Señor.**

R. Amén.

### **GUIÓN ENCUENTRO DE ORACIÓN POR LAS VOCACIONES**

*Os invitamos a que en vuestras parroquias, comunidades, movimientos, grupos cristianos,... dediquéis un tiempo de esta semana a tener un encuentro de oración por las vocaciones. Os proponemos un guión que os puede ayudar.*

#### **MONICIÓN INICIAL**

En estos decenios, las diversas comunidades eclesiales extendidas por todo el mundo se han encontrado espiritualmente unidas cada año, en el cuarto domingo de Pascua, para implorar a Dios el don de santas vocaciones.

También hoy nos reunimos, con motivo de esta Jornada, para pedir al Padre que envíe a su Iglesia las vocaciones que ésta necesita: vocaciones sacerdotales, religiosas, misioneras, laicales,... para que sean signos de esperanza para el mundo.

También le pedimos para que los llamados continúen escuchando la voz del Buen Pastor y le sigan con alegría por el camino del Evangelio que Él les vaya marcando día a día.

#### **Canto**

**ESCUCHAMOS LA PALABRA DE DIOS DEL EVANGELIO DE MATEO: 9,35--10, 1-8**

(Silencio breve)

## COMENTARIO

“Rogad, pues, al Dueño de la mies que envíe obreros a su mies”. Estas palabras de Jesús, dirigidas a los Apóstoles, muestran la solicitud que el buen Pastor tiene siempre por sus ovejas. Lo hace todo para que "tengan vida y la tengan en abundancia" (Jn 10, 10). Después de su resurrección, el Señor confiará a sus discípulos la responsabilidad de proseguir su misma misión, para que se anuncie el Evangelio a los hombres de todos los tiempos. Y son muchos los que han respondido y siguen respondiendo con generosidad a su constante invitación: "Sígueme" (Jn 21, 22). Son hombres y mujeres que aceptan poner su existencia totalmente al servicio de su Reino.

## BOKAZIOEN ALDEKO OTOITZ BILERARAKO GIDOIA

*Hona hemen gure gonbita, zuen parrokia, elkarte, mugimendu, kristau-talde eta abarretan aste honetan, bokazioen aldeko otoitz-bilera bat egiteko eskatuz luzatzen dizueguna. Lagungarri izan dezakezuen gidoi bat proposatzen dizuegu.*

## HASIERAKO OHARRAK

Azken hamarkada hauetan, munduan zehar zabaldurik dauden hainbat eta hainbat eliz elkartek espiritualki bat egiten dute urtero, Pazkoaldiko laugarren igandean, Jainkoari bokazio santuen dohaina eskatzeko.

Gaur ere, Egun hori ospatzen dela-eta, elkarrekin bildu gara Jainkoari eskatzeko bokazioak bidal diezazkiola bere Elizari, honek beharrezko dituen bokazioak: apaiz, erlijioso, misiolari, laiko nahiz beste bokazioak, munduarentzat itxaropenaren zeinu izan daitezen.

Lehendik deitu dituen alde eskatzen diogu, halaber, Artzain Onaren deia entzuten jarrai dezaten eta egunetik egunera berak markatzen dien Ebanjelioko bidetik pozik jarrai diezaioten.

## Kantua

## ENTZUN DEZAGUN JAINKOAREN HITZA MATEOREN EBANJELIOAN: 9,35--10, 1-8

(Isilune laburra)

## AZALPENA



“*Erregutu, bada, uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara*”. Jesusek bere Apostoluei zuzenduriko hitz horiek erakusten dute Artzain onak bere ardien alde duen ardura. Dena egiten du “*bizia –eta bizia ugari gainera– izan dezaten*” (Jn 10,10). Jaunaren piztueraren ondoren, hark bere ikasleen eskuetan utziko du haren misioaren erantzukizunarekin jarrai dezaten, aldi guztietako gizon-emakumeei Ebanjelioa deitzen. Eta asko dira haren etengabeko gonbitari prestutasunez erantzun diotenak eta erantzuten jarraitzen dutenak: “*Zuk jarrai niri*” (Jn 21,22). Euren existentzia guztia Haren erreinuaren zerbitzuan jartzea erabaki duten gizon-emakumeak dira.

## **DEL MENSAJE DE SANTO PADRE**

*“En todo momento, sobre todo en aquellos más difíciles, la fidelidad del Señor, auténtica fuerza motriz de la historia de la salvación, es la que siempre hace vibrar los corazones de los hombres y de las mujeres, confirmándolos en la esperanza de alcanzar un día la «Tierra prometida». Aquí está el fundamento seguro de toda esperanza: Dios no nos deja nunca solos y es fiel a la palabra dada. Por este motivo, en toda situación gozosa o desfavorable, podemos nutrir una sólida esperanza y rezar con el salmista: «Descansa sólo Dios, alma mía, porque él es mi esperanza» (Sal 62,6). Tener esperanza equivale, pues, a confiar en el Dios fiel, que mantiene las promesas de la alianza. Fe y esperanza están, por tanto, estrechamente unidas”.*

### **Breve Silencio**

**Canto:** *Ubi caritas et amor, ubi caritas Deus ibi est*

*“Queridos hermanos y hermanas, ¿en qué consiste la fidelidad de Dios en la que se puede confiar con firme esperanza? En su amor. Él, que es Padre, vuelca en nuestro yo más profundo su amor, mediante el Espíritu Santo (cf. Rm 5,5). Y este amor, que se ha manifestado plenamente en Jesucristo, interpela a nuestra existencia, pide una respuesta sobre aquello que cada uno quiere hacer de su propia vida, sobre cuánto está dispuesto a empeñarse para realizarla plenamente. El amor de Dios sigue, en ocasiones, caminos impensables, pero alcanza siempre a aquellos que se dejan encontrar. La esperanza se alimenta, por tanto, de esta certeza: «Nosotros hemos conocido el amor que Dios nos tiene y hemos creído en él» (1 Jn 4,16). Y este amor exigente, profundo, que va más allá de lo superficial, nos alienta, nos hace esperar en el camino de la vida y en el futuro, nos hace tener confianza en nosotros mismos, en la historia y en los demás”.*

### **Breve Silencio**

**Canto:** *Ubi caritas et amor, ubi caritas Deus ibi est*

## **AITA SANTUAREN MEZUA**

*“Une guztietan, baina bereziki unerik zailenetan, Jaunaganako leialtasuna da gizon-emakumeen bihotzak beti berotzen dituen salbamen-historiako benetako indar eragilea, egunen batean «Agindutako Lurralde» iritsiko dugunaren itxaropenean sendotzen gaituena. Honetan dago itxaropen guztien oinarri ziurra: Jainkoak ez gaitu inoiz bakarrik uzten eta leiala da emandako hitza betetzen. Horregatik, edozein egoeratan, aldeko nahiz kontrako, itxaropen sendo bat elika dezakegu eta salmogilearekin batera otoitz egin: «Ene barrena, Jainkoarengan bakarrik izan atsedean, harengandik baitator nire esperantza» (Sal 62, 6). Itxaropena izatea da Jaungoiko leialarengan, ituneko agintzariak betetzen dituen arengan, uste on izatea. Beraz, fedea eta itxaropena estuki lotuak daude”.*

### **Isilune laburra**

**Kantua:** *Ubi caritas et amor, ubi caritas Deus ibi est*

*“Senide maite-maiteok, zertan datza Jainkoarenganako leialtasuna, esperantza irmoenarekin fida gaitzkeena? Haren maitasunean. Hark, Aita baita, gure niarik barrukoenean isurtzen du bere maitasuna, Espiritu Santuaren bitartez (cf. Erm 5,5). Eta Jesu Kristogan osoki azaldu den maitasun honek gure existentzia interpelatu du, hots, norberak bere bizitzarekin egin nahi duenari buruzko erantzuna eskatzen du, osoki errealizatzeko lehian, zenbat emateko prest gauden. Batzuetan Jainkoaren maitasuna bide pentsaezinetatik ibiltzen da, baina haren bila dabilzanak beti bereganatzen ditu. Beraz, ziurtasun honetan elikatzen da itxaropena: «Guk ezagutu dugu eta sinetsi Jainkoak digun maitasuna» (1 Jn 4,16). Eta maitasun kontentagaitz eta sakon horrek, azaletik haratago doanak, bultzatzen gaitu eta bizitzako bidean eta etorkizunean itxaronarazten digu eta konfiantza izaten laguntzen, geuregan, historian eta besteengan”.*

### **Isilune laburra**

**Kantua:** *Ubi caritas et amor, ubi caritas Deus ibi est*

*“...también hoy Jesús, el Resucitado,...; nos llama a realizar nuestra vida con él, el único capaz de apagar nuestra sed de esperanza. Él, que vive en la comunidad de discípulos que es la Iglesia, también hoy llama a seguirlo. Y esta llamada puede llegar en cualquier momento. También ahora Jesús repite: «Ven y sígueme» (Mc 10,21). Para responder a esta invitación es necesario dejar de elegir por sí mismo el propio camino. Seguirlo significa sumergir la propia voluntad en la voluntad de Jesús, darle verdaderamente la precedencia, ponerlo en primer lugar frente a todo lo que forma parte de nuestra vida: la familia, el trabajo, los intereses personales, nosotros mismos. Significa entregar la propia vida a él, vivir con él en profunda intimidad, entrar a través de él en comunión con el Padre y con el Espíritu Santo y, en consecuencia, con los hermanos y hermanas. Esta comunión de vida con Jesús es el «lugar» privilegiado donde se experimenta la esperanza y donde la vida será libre y plena”.*

### **Breve Silencio**

**Canto:** *Ubi caritas et amor, ubi caritas Deus ibi est*

## ORACIÓN POR LAS VOCACIONES

Señor, hoy, como en todo tiempo,  
tú no cesas de decirnos:

«Salid, sin miedo, para servir».

Los bautizados, respondiendo a su vocación,  
manifiestan la iniciativa de Dios.

Aquellos que dan un paso  
en respuesta a este Amor primero  
descubren que tú les esperas  
con los brazos abiertos.

Señor, acompaña y anima la vida fraterna y litúrgica  
de las comunidades cristianas.

Que ella encienda en cada uno,  
especialmente en los más jóvenes,  
el deseo de discernir su modalidad de vocación  
para ponerse plenamente  
al servicio de Dios y de la evangelización.

Señor, da luz y fortifica a aquellos que tú llamas  
a consagrarte plenamente su vida  
en el camino del matrimonio,  
del presbiterado y de la vida consagrada. Amén

*“...gaur bertan ere, Jesus Piztuak, itxaropen-egarria asetzeko gai den bakarrak, deitzen digu gure bizitza harenarekin bizitzera. Berak, ikasleen elkarte den Elizan bizi denak, gaur egun ere hari jarraitzera deia luzatzen du. Eta dei hori edozein unetan irits daiteke. Orain ere behin eta berriz esaten du Jesusek: «Zatoz eta jarraitu niri» (Mk 10,21). Gonbit horri erantzuteko, ezinbestekoa da nork bere kabuz bidea erabakitzeari uko egitea. Hari jarraitzeko*

*norberaren borondatea Jesusen borondatean sartu behar du; lehenasuna hari eman behar dio bene-benetan; gure bizitza osatzen duen guztiaren aurrean hura jartzea lehen postuan: familia, lana, interes pertsonalak, geure burua. Norberaren bizitza hari eskaintzea da; harekin hurbiltasun minenean bizitzea; haren bitartez Aitarekin eta Espiritu Santuarekin harremanean jartzea, eta ondorioz, baita senideekin ere. Bizitzan Jesusekin bat egite hau da pribilegiozko “leku”, itxaropena bizitzen den leku, bizitza librea eta betea izango denaren leku”.*

### **Isilune laburra**

**Kantua:** *Ubi caritas et amor, ubi caritas Deus ibi est*

## **BOKAZIOEN ALDEKO OTOITZALDIA**

*Jauna, gaur,  
garai guztietan bezala  
atergabe esaten diguzu:  
«Abia zaitetzte, beldurrik gabe, zerbitzura».*

*Bataiatuek, norbere bokazioari erantzunez,  
Jainkoaren ekimena agertzen dute.  
Lehen maitasun horri erantzunez  
urrats bat ematen dutenak  
konturatzen dira Zu zain zeundela,  
besoak zabalik.*

*Jauna, lagundu eta adoretu ezazu  
kristau elkartean  
elkar bizitza eta liturgi bizitza.  
Berorrek pitz dezala guztiengan,  
eta gazteenengan bereziki,  
norbere bokazio-modua  
bereizteko gogoan,  
Jainkoaren eta ebanjelizazioaren  
erabateko zerbitzura jartzeko.*

*Jauna, argitu eta sendotu itzazu,  
ezkontzako bidean,  
apaizgoan nahiz bizitza sagaratuan  
beraien bizitza zuri erabat eskaintzera  
deitzen dituzunak.  
Amen.*